



*Analfabetoa idazle* aurkeztu du Alberdaniak, Agota Kristofen autobiografia literarioa. Eskarne Mujikak egin du itzulpena. Lehendik ere bagenuen Kristofen lana euskaraz irakurtzeko aukera, Mujikak berak itzuliak baitira *Koaderno handia* (Alberdania, 1997), *Atzo* (Elkar-Alberdania, 2003), eta *Berdin dio* (Alberdania, 2005).

Hain zuzen ere, Kristofen lanaren euskarazko itzultzaile nagusia zela ikusirik, Anjel Lertxundik erronka jo zion Mujikari, *Analfabetoa idazle* ere itzul zezan, «liburu labur eta handia». 2004an argitaratu zen lana jatorriz, autorea hil baino 6 urte lehenago, eta haren bizitzako pasadizoak ditu aipagai, atal motzetan eta modu indartsuan.

Hungarian jaio zen Kristof, baina, 21 urte zituela, 1956an, jaioterritik joan zen ihesi alabarekin, errepresio politikoaren beldur. Ordudanik eta hil zen arte (2011) Neuchatelen bizi izan zen, Suitzan, eta frantsesez argitaratu zituen bere

liburu guztiak. Antzezlanak argitaratu zituen lehenik, baina nobelei esker egin zen ezaguna mundu osoan, bikiei buruzko trilogiari esker bereziki, zeina hogeita hamar hizkuntzara itzuli baitute –trilogia horretako lehen izenburua da *Koaderno handia*, euskara ekarri zioten estreiankoa–.

Hizkuntzekiko izan zuen harremanak zerikusi zuzena du liburu honen izenburuarekin eta bertan azaltzen diren kontuekin. Honela kontatu du Lertxundik: «Liburuan zehar mintzo den idazlea ez zen analfabetoa hungarieraz 21 urterekin [...]. Diktadura utzi behar izan zuenean, orduan bihurtu zen analfabetoa. Adopzio hizkuntzan zen analfabetoa». Frantsesez, alegia. Hori dela-eta, liburu honetan, ama hizkuntzaz eta «hizkuntza etsaiez» dihardu autoreak (alemana eta errusiera, baita frantsesa bera ere) besteak beste.

Irati Majuelo literatur kritikariaren arabera, autobiografia hau «Kristofen argitalpenik intimoena» izan arren, «literaturari lotutako biografia da», eta, bestalde, «bizi-ibilbide pertsonalarekin batera, ordea, XX. mendeko Europaren zatitxo bat irudikatzen du. Bigarren planoan, baina etengabeko eragin ukaezinaz irauten duten historiako gertakizun esanguratsuak aurkituko ditu irakurleak Kristofen anekdota eta hausnarketetan: II. Mundu Gerra, Hungaria sobietikoa, Stalinen heriotza, Europa ekialdeko atzerriratze-prozesuak».

